

5

Euskara ardatz izanen duen jendarte kohesioa helburu, etorri berriei harrera eta kultur aniztasuna Bortzirietan

Urko Ikardo Enparan
Patri Arburua Etxeberria

Bortzirietako Euskara Mankomunitateko euskara teknikariak
euskara@bortziriak.eus

Sarrera-data: 2021/03/25 - Onartze-data: 2021/05/21

Laburpena. Immigrazioa eta euskara da gaia. Bortzirietako Euskara Mankomunitateak duela bi hamarkada ekin zien hizkuntza harrera eta migrazio prozesuen ondoriozko hizkuntza eta kultura aniztasuna lantzeari, dagozkion helburu eta jarduera esparrutik, hau da, euskararen biziberritzea lortzea eskualde mailan. Urteen joanean izan da bilakaerarik, bai gaia lantzeko ikuspegiari dagokionez, bai migrazioek eta gure jendarte kulturalki eta linguistikoki gero eta anitzagoek planteatzen dituzten erronkei erantzuteko bitarteko eta jarduerari dagokienez. Ibilbide dagoeneko luze horretan, bereziki erreparatu zaio mankomunitateko planetan gaia zehar lerro gisa lantzeak dakarrenari, abian diren zenbait egitasmoren azalpenean zertxobait sakontzen da, eta, aitzinera begira, euskara ardatz izanen duen jendarte kohesioa helburu, planteatzen diren erronka nagusiak begiz jotzen dira. • *Hitz gakoak:* Etorri berriak, euskara, hizkuntza harrera, kultur eta hizkuntza aniztasuna.

Abstract. The issue is immigration and Basque. The Bortziriak Basque association started working on linguistic and cultural diversity resulting from processes of linguistic reception and migration two decades ago, based on the association's aims and spheres of activity, i.e. revitalising Basque at county level over the years, both from the point of view of how to approach the issue and from that of the means and actions to meet the challenges posed by migrations in an increasingly culturally and linguistically diverse society. Over this long period, in all the association's plans particular emphasis has been placed on what is involved in working on the issue, current projects are outlined in more detail and, looking to the future, consideration is given to the main challenges to social cohesion in relation to Basque. • *Key words:* new arrivals, Basque, linguistic reception, cultural and linguistic diversity.

1. SARRERA

I
Zenbaki monografiko honetarako “Euskara eta immigrazioa” da proposatu zaigun gaia. Guk baino ibilbide luze eta oparagoa dute arlo honetan bertze hainbatek, baina ezin uka gure aspaldiko kezka dela, eta euskara ardatz duen harrera eta jendarte kohesiorako urrats eta jarduerekin ez ginela bart gauerdian hasi. Gai honekin estuki lotua, etorri berrientzako hizkuntza harrera pentsatu eta antolatzea izan dira gure lehentasunak. Hizkuntza eta kultur aniztasuna, elkar ezagutza, jendarte kohesioa, batera edo zeharka landu ditugu. Urteen joanean gure ikuspegiaren izan da bilakaerarik. Hizkuntza integrazioaz ari garela, etorri berri diren herritarrek egin beharreko ibilbidean pausatu dugu maiz begirada, harreragileok dugun ardura eta egitekoari behar adinako arretarik paratu gabe. Bertzalde, immigrazioaren gaiak harago ere landu nahi izan dugu hizkuntza harrera, arnagune garen edo horretarako bokazioa dugun aldetik, eta Bortzirietara kanpotik heldu den herritar orori hizkuntzaren inguruko mezu eta baliabide jakinak helarazi nahi izan dizkiegu; izan euskaldun, izan erdaldun, izan Euskal Herrian sortua, izan kanpoan sortua.

Artikulu honetan, gure ibilbidea azalduko dugu. Ez dugu helburu kronologia xehea egitea, baizik eta agerian paratzea zein izan diren emandako pausoak, edo aitzinera pausoak hobeki erranda, immigrazioa, harrera eta euskara uztartzeko lantegi horretan. Ondorio bezala, bere xumean nabarmendu nahi ditugu, batetik, gure planetan aniztasunaren gaia oinarri eta zehar lerro bezala lantzeak zer ekarri digun, alegia, gure ikuspegia zertan den, eta, bertzetik, etorri berrien harrerarako abian ditugun egitasmo edo jarduera batzuk.

2. EGOERA

I
Bortziriak, Nafarroako Ipar Ekialdeko eskualdea da, 8.500 biztanle bizi dira bertan, eta bere izenak dioen bezala bortz udalerrik osatzen dute, Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi, eta Lesakak.

Migrazio prozesuak ez dira berriak gure historian. Duela mende erdi pasa, bi prozesu gertatu ziren bata bertzearengandik hurbil denboran, eta uneren batean biak gertatu ziren batera: urbanizazio eta industrializazioak eraman zituen Bortzirietako hainbat herritar Euskal Herriko hirietara, baita atzerrira emigratzera ere (artzain, basolanetara, neskame,


***Immigrazioaren
gaiak harago
Bortzirietara
kanpotik heldu
den herritar orori
hizkuntzaren
inguruko mezu
eta baliabide
jakinak helarazi
nahi izan
dizkiegu; izan
euskaldun, izan
erdaldun, izan
Euskal Herrian
sortua, izan
kanpoan sortua.***

Immigrazioari eta kultur zein hizkuntza aniztasunari buruzko ikerketa sakonagoak beharko genituzke, bai hemen, bai oro har: 2019an Bortzirietan erroldatutakoan % 8,7 atzerrian jaiotakoak dira, eta azken hamabortz urteetan zenbateko hori bikoiztu egin da.

etab.), eta, 60. hamarkadatik aitzinera, Espainiako Estatutik batez ere hainbat herritar etorri zen bizitzera Bortzirietara, bertan lantegi handiak eraikitzearekin batera (Arburua 2005).

Hemen, ordea, azken bi hamarkadetako joera demografikoak eta immigrazio prozesua izanen ditugu aztergai. Ez gara diagnosian sobera luzatuko; gure errealitatea hobeki ulertzeko eta bere testuinguruan kokatzeko (Nafarroan eta Euskal Herrian) oinarrizko datu batzuk emanen ditugu. Immigrazioari eta kultur zein hizkuntza aniztasunari buruzko ikerketa sakonagoak beharko genituzke, bai hemen, bai oro har. Berriki Gipuzkoan eta Bizkaian hizkuntza aniztasunaren mapak aurkeztu dituzte, biztanleen hizkuntza eta jatorri aniztasuna luze-zabalean deskribatzen dituzten ikerketak (Soziolinguistika Klusterra 2021). Interesgarria litzateke Nafarroan gisa horretako ezagutza tresnak izatea. Ezin mapa horietan jasotzen diren hainbat datu interesgarri eman, beraz, Instituto Nacional de Estadística (INE)k emandako datuetan¹ eta horien ustiapenean oinarrituko gara.

1. Grafikoa. Biztanleria jaioterriaren arabera. Bilakaera 2004-2009 (%)



Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE) eta BEMek landuak.

Datuek erakusten digutenez, 2019an Bortzirietan erroldatutakoan % 8,7 atzerrian jaiotakoak dira, eta azken hamabortz urteetan zenbateko hori bikoiztu egin da.

**1 Taula. Atzerrian jaiotakoak herriz herri, generoaren arabera eta guztira
2019**

| | Gizonezkoak | | Emakumezkoak | | Guztira | |
|-------------------|-------------|------------|--------------|------------|--------------|------------|
| Arantza | 0 | 0 | 13 | 4,6 | 597 | 2,2 |
| Bera | 204 | 11,1 | 236 | 12,4 | 3.736 | 11,8 |
| Etxalar | 25 | 5,9 | 33 | 8,5 | 813 | 7,1 |
| Igantzi | 26 | 7,7 | 26 | 8,7 | 639 | 8,1 |
| Lesaka | 84 | 6 | 94 | 7 | 2.741 | 6,5 |
| Bortziriak | 339 | 7,8 | 402 | 9,6 | 8.526 | 8,7 |

Nafarroako eta Gipuzkoako datuekin alderatuz gero, atzerrian jaiotakoaren proportzioa Bortzirietan zertxobait baxuagoa da: % 8,7 (Nafarroan % 11 eta Gipuzkoan % 9,5).

Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE) eta BEMek landuak.

Atzerrian jaiotakoaren taldeari erreparatuta, nabarmentzekoak honako hauek dira: alde batetik, Beran dagoela proportziorik altuena (% 11,8), eta bertzetik gehiago direla emakumezkoak gizonezkoak baino (ia bi puntuko alde). Alde hori nabarmenagoa da Arantzan eta Etxalarren.

Nafarroako eta Gipuzkoako datuekin alderatuz gero, atzerrian jaiotakoaren proportzioa Bortzirietan zertxobait baxuagoa da (Nafarroan % 11 eta Gipuzkoan % 9,5). Nolanahi ere, Berako zenbatekoa Nafarroakoaren parekoa da, eta Bera da eskualdeko herririk haundiena.

**2 Taula. Atzerrian jaiotakoak herriz herri, generoaren arabera eta guztira
2019**

| | Guztira | | Europa | | Afrika | | Amerika | |
|----------------|------------|-------------|------------|---------------|-----------|--------------|------------|---------------|
| Gizonezkoak | 339 | 45,70% | 194 | 55,10% | 8 | 34,80% | 133 | 37,20% |
| Emakumezkoak | 402 | 54,30% | 158 | 44,90% | 15 | 65,20% | 225 | 62,80% |
| Guztira | 741 | 100% | 352 | 47,50% | 23 | 3,10% | 358 | 48,30% |

Iturria: Instituto Nacional de Estadística (INE) eta BEMek landuak.

Jatorriei begiratzan badiegu, bi multzo haundi eta pareko ditugu (bere aniztasun guziarekin), Europatik etorritakoena eta Ameriketatik etorritakoena. Jatorria eta generoa gurutzatzen baditugu, ondorioa da Europatik gizonezko gehiago heldu dela eta Afrikatik eta Ameriketatik nabarmen emakumezko gehiago.

**2018an Harrera
Planean jasotako
nazionalitateen
azterketatik
hurbilpen bat
egiten ahal
dugu; gutxienez
16 hizkuntza
desberdin
identifikatzen
ahal dira
nazionalitate
bakoitzari
hizkuntza nagusi
edo ofizial bat
esleituta, baina
gehiago izanen
dira noski.**

Hizkuntza aniztasunari buruzko informazio xeheagorik ezean, 2018an Harrera Planean (Topagunea; Bortzirietako Euskara Mankomunitatea 2018, 20) jasotako nazionalitateen azterketatik hurbilpen bat egiten ahal dugu; gutxienez 16 hizkuntza desberdin identifikatzen ahal dira nazionalitate bakoitzari hizkuntza nagusi edo ofizial bat esleituta, baina gehiago izanen dira noski.

Etorri berrien (seme-alaben) eskolatzeari buruzko datu zehatzak falta zaizkigu, ikastetxeka eta ereduka zenbat diren jakiteko. Hala ere, egin ahal izan ditugun estimazio eta barne mailako datu bilketetan, bi ondorio nagusi atera ahal izan dugu:

- Ikastetxe jakin batean etorri berrien (edo horien seme-alaben) proportzioa aunitzez haundiagoa da.
- Etorri berriak (edo horien seme-alabak) proportzioan aunitzez gehiago dira B eta bereziki A ereduetan.

Dena dela, errealitate hau aldakorra da, eta erran beharra da gero eta gehiago direla D ereduan matrikulatzen diren etorri berriak (edo horien seme-alabak). Baieztapen hori egiten ahal dugu, batetik, Arantzan, Etxalarren, Igantzin eta Lesakan D eredua baino ez dagoelako, eta, bertzetik, euskara indartzeko gero eta behar haundiagoa sumatu delako².

Euskaltegian ere nabarmena da ikasleen jatorri eta hizkuntza aniztasunaren areagotzea. Azken bi ikasturteotako datu batzuk³ ekarri ditugu hona, jatorri eta hizkuntza aniztasun hori agerian paratzen dutenak. Gerorago aipatuko dugun doakotasun programak horretan eragin baikorra izan duelakoan gaude.

- 2019-2020 ikasturtean.
 - Ikasleen jatorria: Espainia, Venezuela, Argentina, Errumania, Herrialde Katalanak, Ekuador, Brasil, Dominikar Errepublika, Italia, Kuba, Kolonbia, eta Frantzia.
 - EHTik kanpoko 29 ikasle, % 45 (guztira 64 euskaltegian).
- 2020-2021 ikasturtean.
 - Ikasleen jatorria: Espainia, Herrialde Katalanak, Argentina, Nikaragua, Alemania, Italia, Dominikar Errepublika, Frantzia, eta Uruguai.

- EHTik kanpoko 19 ikasle, % 40 (guztira 47 ikasle euskaltegian).
- Lehen urratsetik hasi ziren 7 ikasleen artean, bakarra da Euskal Herrian sortua.

Atal honi akabaila emateko, Bortzirietako II. Plan Estrategikoaren diagnostikoan gaiari buruzko aipamen hau ekarriko dugu hona:

“Migrazio prozesuak areagotu dira, eta gure jendartea gero eta anitzagoa da, jatorri, kultura eta hizkuntza askotarikoak dituzten herritarrek osatua. Kultur eta hizkuntza aniztasuna baloretzat hartuta, euskara ardatz izanen duen gizarte kohesioa planteatzea da erronka. Harrera gizartearen eta etorri berrien elkar ezagutza, elkarguneak eta komunikazioa ezinbertzekoak dira”. (Elhuyar; Bortzirietako Euskara Mankomunitatea 2020, 28).

3. AURREKARIAK

I

Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen 2003ko planean ikusiko ditugu lehen aldiz immigrazioaren arloa eta horrekin lotutako jarduerak. Errepaso kronologikoa eginda, geroztik hiru fase ezberdin nabarmenduko genituzke.

3.1. Hastapenak 2003-2009

Harrera linguistikoaren kontzeptua esplizituki aipatzen ez bazen ere, lehen jarduera hain zuzen “Ongi etorri” liburuxka izan zen, eskualdera iristen ari ziren etorkinei euskararen eta eskualdeko oinarrizko baliabideen berri ematea xede zuena. Baztango Udalak, Malerrekako Mankomunitateak eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak elkarlanean argitaratu zuten.

2004-2006 urteetan gaiari ikuspegi zabalagotik eta eragile gehiagoren elkarlanaren bidez heldu zitzaion. Lantalde bat eratu zen, hasiera batean euskalgintzako kideez eta gizarte zerbitzuko nahiz euskara zerbitzuko teknikariez osatua. Gerora, eragile gehiago batu zitzaizkion: batetik Caritas eta elizako ordezkariak, eta bertzetik Bortzirietako etorkinen elkarte, Inti Kausay. Immigrazioari buruzko ikerketa ere garai honetan egin zen, eta erran daiteke ondoko urteetako plangintzaren oinarri izan zela.

Hortik abiatuta, 2006-2008 urteak izan ziren hastapen garaiko aberatseak. Landu ziren ildo nagusiak honakoak izan ziren:

2004-2006 urteetan lantalde bat eratu zen, hasiera batean euskalgintzako kideez eta gizarte zerbitzuko nahiz euskara zerbitzuko teknikariez osatua. Gerora elkartu ziren Caritas eta elizako ordezkariak, eta Bortzirietako etorkinen elkarte, Inti Kausay.

Etorri berri ziren ikasleentzako euskara errefortzua: planifikazio behar puntualei erantzunez D ereduko euskara eskolak, eta institutuko A ereduko zenbait ikaslek euskara ikastaro trinkoa.

- Sentsibilizazioa: “Mundua Bortzirietan” leloarekin hainbat kanpaina, argitalpen, jardunaldi eta topaketa egin ziren, hein batean baliagarri izan zirenak bertakoen eta kanpotik etorritakoen elkar ezagutzarako eta errealitate berria gizarteratzeko. Hasiera batean festa girokoak izan baziren ere (gastronomia eta folklorea oinarri), berehala edukiz bete eta aberastu ziren (hitzaldiak eta mahainguruak, manifestuak, erakusketak, DBHko ikasleekin ere sentsibilizazio saioak...).
- Harrera: Bortzirietako baliabideen gida osatu zen. Bortzirietan erroldatzen ziren edota gizarte nahiz osasun zerbitzuetara jotzen zuten etorri berriei emateko xedez egin zen, informazio ugari eskainiz (zerbitzu eta baliabide orokorrei buruzko informazioa, tartean euskarari buruzkoa).
- Etorri berri ziren ikasleentzako euskara errefortzua: planifikazio zehatzik gabe eta behar puntualei erantzunez eskaini ziren D ereduko zenbait ikaslerentzako euskara eskolak. Hala berean, institutuko A ereduko zenbait ikaslek euskara ikastaro trinkoa egin zuten.
- Formakuntza: aisialdiko begiraleentzako formakuntza hizkuntza eta kultura aniztasunaren inguruan.

Garai oparoa izan zela erran daiteke, jarduera puntualekin hasi eta eragile aunitzen artean adostutako diagnostiko eta plan sendoak garatzeraino. Erabilitako terminologian eta kontzeptuetan ere bilakaera interesgarria izan zen: hastapen aldi honen bukaeran hizkuntza eta kultura aniztasuna edota harrera (eta zehatzago harrera linguistikoa) bezalako kontzeptuak finkatuta zeuden. Alabaina, 2009an etena etorri zen, krisialdi ekonomikoak, norabide politikoaren aldaketak eta maila teknikoan izandako gorabeherak eraginda.

3.2. Bortzirietako I. Plan Estrategikoa 2013

Urte batzuetako geldialdiaren ondoren, susperraldia 2014tik aitzinera gertatu zen. Urtebete lehenago mankomunitateko egituretan gogoeta prozesu bati ekin zitzaion. Herritar zein eragileen parte hartzearekin, eta Elhuyarren aholkularitzarekin, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen I. Plan Estrategikoa osatu zen, mugarria izan zena (Elhuyar; Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, 2013). Orduko hartan, 100 la-

gunetik goiti elkartu ziren dinamika eta saioetan, eta, destilazio hartatik, eragiteko arloa eta helburuak zehaztu ziren: hizkuntza integrazioa zen arloa, eta helburuak, honako hauek (Ibid., 64):

- Bortzirietara bizitzera edota lanera etortzen direnen hizkuntza eta kultur integrazioa lortzea.
- Bertako erdaldunekiko harremana lantzea.
- Gaztelaniaz aritu ohi diren herritar euskaldunen hizkuntza ohiturak aldatzea.

Arloari dagokionez, honela ulertzen zen: Bortziriek arnagune izateko bokazioa dute, zenbait herri eta gunetan euskararen bizindarra nabarmena da, eta, hortaz, euskararen biziberritzean eredugarri izatea dago. Herritar guzien hizkuntza integrazioan paratzen da arreta, jatorria zein den ere, euskarara eraman/erakarri behar duen prozesu gisa. Etorri berri guziei harrera linguistiko egokia egitean paratzen da azpimarra; xede talde bakoitzak behar du berariazko tratamendua.

Epealdi honetatik bi lorpen nabarmenduko ditugu. Batetik, euskara ikasleentzako dirulaguntza sistema berriaren ezarpena, doakotasuna⁴ ortzimuga duena. Ez da berariaz etorri berrientzako neurria, baina ahalgina egin zen komunikazioan xede taldeen aniztasuna kontuan hartzeko, eta harreran zerikusia duten aktoreengana ailegatzeko (gizarte zerbitzuak, ikastetxeak, etab.). Arestian aipatu ditugun datu horiek, euskaltegiko ikasleen jatorri aniztasunari buruzkoak, 2016tik aitzinera hasi ziren nabarmentzen; horretan izan du noski eraginik doakotasunak.

Bertze alde batetik, epealdiko lorpenik haundiena harrera sistematizatzea izan zen. Hasierako helburua protokolo bat prestatzea bazen, etorri berrientzako hizkuntza harrera planerako jauzia egitea aitzinera pauso galanta izan da; ikuspegia zabaltzea ekarri du, zenbait urtera egin beharrekoak biltzea eta, batez ere, harreraz harago, hizkuntza eta kultura aniztasuna lantzeari dagokiona, euskara ardatz izanen duen gizarte anitz eta kohesionatu baten lorpena begira paratzea.

3.3. Bortzirietako Hizkuntza Harrera Plana 2018

Bortzirietako harrera plana Topagunearen aniztasun taldearen aholkularitzarekin egin zen. Plana osatzeko zenbait lagun elkartu ziren (euskara teknikariak, gizarte hezitzailea, zenbait irakasle, mankomunitate-

***Epealdi honetatik
bi lorpen
nabarmenduko
ditugu: euskara
ikasleentzako
dirulaguntza
sistema berriaren
ezarpena,
doakotasuna
ezartzea,
eta harrera
sistematizatua.***

**Hizkuntza
ekologiaren
printzipioa
aintzatetsita,
etorri berrien
jatorrizko
kultura eta
hizkuntza(k)
balioan
paratzen dira;
jendarte batean
ukipenean bizi
diren hizkuntza
eta hiztunei
garatzeko aukera
ematen zaie.**

ko burua, kanpotik gurera etorritako hiztun berri bat, eta Topaguneko aholkulariak), egindako ibilbidea baloratu, eta, aitzinera begira, hizkuntza harrerak izan beharko lituzkeen ezaugarriak, helburuak eta jarduerak adosteko. Kontzeptuak definitzen dezente aitzindu zen.

3.3.1. Harreraren definizioa

Harrerak herria ezagutu eta herrira egokitzeko ekintzei (prozesuari) egiten die erreferentzia (Topagunea-Bortzirietako Euskara Mankomunitatea 2018, 3). Ailegatu berritan, lehenengo une horiek berebiziko garrantzia dute herrian txertatzeko, are gehiago sare sozial propiorik ezean. Harrera sozializazio prozesuarekin parekatzen da, bi norabidetakoa izaki, eta arreta paratzen da gizarte hartzailearen egitekoan (orain arte ez bezala): herritarrak eta eragileak harreragintza horretan inplikatu gero, gizarteratze hori arrakastatsua izanen da.

Horrez gain, harrera instituzionala (bereziki udal erakunde eta ikastetxeak) eta gizarte mailakoa (elkarteak, sare informalak, jatorri bereko herritarrak, etab.) bereizten dira, bakoitzaren garrantzia eta osagarritasuna azpimarratuta.

Harrera behin-behineko prozesua da, ezin dena denboran aunitz luzatu. Bi urtetik aitzinera, elkarbizitzaz, inklusioaz eta kohesioaz solastatu behar dugu. Hizkuntza harrerari dagokionez, abiapuntua da Bortzirietan euskara dela gizarte kohesiorako hizkuntza. Hizkuntza ekologiaren printzipioa aintzatetsita, etorri berrien jatorrizko kultura eta hizkuntza(k) balioan paratzen dira; jendarte batean ukipenean bizi diren hizkuntza eta hiztunei garatzeko aukera ematen zaie ikuspegi honetatik.

3.3.2. Planaren helburuak eta xede taldea

Bortz helburu nagusi bereizten dira harrera planean (Ibid, 5):

- Ongi etorria: bereziki, etorri berriei informazioa eta baliabideak ematea.
- Herritarrak harreran inplikatzea: herritarrak sentsibilizatzea eta harrera sare soziala sortzea.
- Elkar ezagutza: horretarako gunek eta uneak.
- Hizkuntza aniztasuna aitortzea: kultura aniztasuna balio positiboekin lotzea, eta gogoeta eragitea, baita euskararen egoeraz zein hizkuntza ohiturez ere.

- Harrera planaren koordinazioa, ulertuta administrazioaren eta herritar eragileen ardura partekatu gisa.

Xede taldea modu honetara zehazten da: etorri berriak dira harrera planaren helburu, Bortzirietara, euskararen arnagune den edo horretarako bokazioa duen eskualde honetara bizitzera etorri den pertsona oro. Bereziki, euskara ez dakiten herritarrei bideratua da harrera plana, baina ez bakarrik.

3.3.3. Harrera planetik nabarmentzekoak

Ez gara luzatuko harrera planean biltzen diren ekintzetan. Izan ere, Bortzirietako Euskararen II. Plan Estrategikoak bere egiten ditu, hortaz, aitzinerago aipatuko ditugu. Ordea, merezi du nabarmentzea harrera planak ez dituela soilik harrera ekintzak aurreikusten; harreraz haragoko helburu eta jarduerak aurreikusten dira, kultur eta hizkuntza aniztasunaren aitortzarekin zerikusia dutenak, eta euskara ardatz duen jendarte kohesioa jomugan dutenak.

Aipatzekoa da plana abiatu eta berehala heldu zaiela geroxeago garatuko dugun mentoretza programa pilotuari eta oinarritzko euskara ikastaro berezituen ibilbideari⁵.

4. BORTZIRIETAKO II. PLAN ESTRATEGIKOA 2020-2024

I

4.1. Lehen plan estrategikotik bigarrenera

Lehenbiziko planetik bigarrenera doan bitarte horretan bi mugarri aipatzen ahal dira: I. planaren ebaluazio sakona, eta II. plana osatzeko herritarrekin eta eragileekin burura eramandako gogoeta.

Ebaluaziotik honakoak nabarmenduko genituzke::

Planaren betetze mailari dagokionez, hizkuntza integrazioarako aurreikusi ziren ekintzen % 75 landu ziren (Bortzirietako Euskara Mankomunitatea 2020, 47).

Helburuen lorpenari dagokionez, honako hauek azpimarratu ziren:

Merezi du nabarmentzea harrera planak ez dituela soilik harrera ekintzak aurreikusten; kultur eta hizkuntza aniztasunaren aitortzarekin zerikusia dutenak, eta euskara ardatz duen jendarte kohesioa jomugan dutenak ere presentzia dute.

Hizkuntza integrazioa helburu, lorpen haundiena izan da etorri berriei harrera egiteko plana prestatzea, kultura eta hizkuntza aniztasuna balioztat hartuta, euskara ardatz izanen duen gizarte kohesioa planteatzea.

— Hizkuntza integrazioa helburu, lorpen haundiena izan da etorri berriei harrera egiteko plana prestatzea, eta aitzineko hamarkada hasierako etenaldia gaindituta, kultura eta hizkuntza aniztasuna balioztat hartuta, euskara ardatz izanen duen gizarte kohesioa planteatzea, eta, etorri berriei euskarari buruzko informazio, mezu eta bitartekoak eskaintzea, euskarara hurbildu daitezen, eta seme-alabek euskaraz (ere) ikas dezaten. Ikastetxeetan sortu den euskara indartzeko beharrari modu xumean erantzun diogu mentoretza egitasmoarekin, garapena beharko duena (Ibid, 52).

Erronkei dagokienez, honako hauek azpimarratu ziren:

— Aniztasunaren gaiak gure etorkizuneko plangintzetan bertze trataera bat beharko du, zeharkakoagoa. Izan ere, mugikortasuna eta migrazio prozesuak egiturazkoagoak izanen dira; aldakortasun eta aniztasun horri egokitzeko gai izan beharko dugu. Argi da, gainera, harrera eta hizkuntza sozializazioa (familia eta hezkuntza bidez) eskutik helduta doazela. Plangintzaldiko lorpena izan bada harrera plana osatzea, hurrengoari egokituko zaio garapena eta egikaritzea, eta, horretarako, borondate politikoa, baliabideak, eragile ezberdinen arteko elkarlana eta herritar boluntarioen aktibazioa ezinbertzeak izanen dira (Ibid, 52).

4.2. Immigrazioa eta euskara II. Plan Estrategikoan

4.2.1. Lehentasunez landu beharreko ildoak

Bortzirietako Euskararen II. Plan Estrategikoaren arabera,

— Gure jendartea gero eta anitzagoa da, jatorri, kultura eta hizkuntza askotariakoak dituzten herritarrek osatua. Azken hamarkadetakoa migrazioek eta mugikortasunaren areagotzeak konplexutasun haundiagoa eta erronka berriak⁶ ekarri dituzte gure herrietara. Etorkizunean euskaldunen dentsitate altuko herri edo arnagune izaten segitzeko ezinbertzekoa izanen da, gure herrietako kultur eta hizkuntza aniztasuna aitorituta, etorri berriak euskarara eta euskal kulturara hurbiltzea, eta belaunaldi berriak euskalduntzea (Elhuyar; Bortzirietako Euskara Mankomunitatea 2020, 6).

4.2.2. Bortziriak euskararen arnagune

— Nekez erraten ahal dugu eskualde osoa arnagune denik. Halere, zalantzarik gabe, eta aurreko plangintzaldian ere hala jaso zen, eskualde honek baditu arnagune izateko bokazioa eta aukerak. Arnagune edota udalerrri euskal-

dun jo diren eremuei trataera berezia ematea ezinbertzekoa da, euskarak gizarte bizitzan duen nagusitasuna zainduz eta sendotuz. Izan ere, hizkuntza guziek behar dituzte kualitatiboki osoak eta trinkoak diren gizarte guneak, beren biziberritzea eta garapena bermatzeko. (Ibid, 9).

4.2.3. Zehar lerroak

— *Zehar lerro jotzen dugu, bertze batzuen artean, kultura eta hizkuntza aniztasuna. Bistakoa da azken hamarkadotan eskualdean bizi direnen artean kultura eta hizkuntza aniztasuna areagotu dela. Eskualdean bizi diren herritar guzien bizikidetzat bermatze aldera, garrantzitsua da aniztasun hori aintzat hartzea. Betiere euskara ardatz duen gizarte kohesioaz ari gara, bateratzailea izanen dena, inor ere baztertuko ez duena. Berariaz landuko den arloa izateaz gainera, aniztasunarena zehar lerrotzat jotzen da, gizarte bizitzaren eta normalizazio planak jasotzen dituen ildo eta arlo guzietan aintzat hartzekoa delakoan. (Ibid, 13).*

II. Plan Estrategikoan txertatu dira, ildo eta arlo ezberdinetan, 2018ko hizkuntza harrera planean aurreikusi diren jarduerak⁷.

4.2.4. Helburuak

Hiru helburu nagusi lortu nahi dira, edo horien lorpenerako aitzinera pausoak ematea bederen (Ibid, 29):

- 1) *Bortzirietako haur eta gazteen sozializazio prozesuan eragiten duten arloetan euskara ikasi eta erabiltzeko baldintzak bermatzea.*
- 2) *Bortzirietan euskaraz hitz egiten duten herritarren kopurua haunditzea.*
- 3) *Gizarte bizitzaren arlo guzietan euskararen erabilera haunditzea eta horretarako aukerak areagotzea.*

Helburuen garapenean berariaz aipatzen dira euskaraz jakinen duten hiztun gehiago izatea, bereziki kanpotik gurera bizitzera etorri diren jatorri aunitzetako herritarren artean, eta etorri berrien harreran, euskararen erabilera areagotzea, horretarako herritarrak eta gizarte eragileak aktibatu eta ahaldunduta.

4.3. Jarduera aipagarrienak

Planari kuantitatiboki begiratzen badiogu, 5 ildo estrategiko, 30 arlo eta 173 jarduera biltzen dira bertan. Immigrazioarekin, harrerarekin eta

Azken hamarkadotan eskualdean bizi direnen artean kultura eta hizkuntza aniztasuna areagotu da. Eskualdean bizi diren herritar guzien bizikidetzat bermatze aldera, garrantzitsua da aniztasun hori aintzat hartzea. Betiere euskara ardatz duen gizarte kohesioaz ari gara, bateratzailea izanen dena, inor ere baztertuko ez duena.

**Harrera
linguistiko:
Erroldatzen den
herritar orori
euskara ikasteko
baliabideen berri
ematea, harrera
instituzionaleko
eragileak
trebatzea, ongi
etorri saioa
eskaintzea eta
herria ezagutzeko
bisita gidatuak
antolatzea.**

aniztasunarekin lotutako gaiak 3 arlotan bildu dira. 8 helburu eta 14 jarduera zerrendatu dira. Jarraian, bi jarduera multzo azalduko ditugu xehekiago.

4.3.1. Harrera linguistikoa

Helburu nagusiak dira etorri berriei ongi etorria eta informazioa ematea, herritarrak harreragile izateko sentsibilizatzea eta inplikatzeta, eta herritarren eta udal agintarien arteko elkarlana. Horretarako, honako jarduera hauek aurreikusi dira:

- Erroldatzen den herritar orori euskararen inguruko informazioa, euskarri ezberdinak erabilita, zehazki euskara ikasteko baliabideen berri emanez.
- Harrera instituzionala egiten duten eragileei (udalak, gizarte zerbitzuak, ikastetxeak...), hizkuntza harreraren inguruko trebakuntza.
- Etorri berriei ongi etorria eta informazioa emateko saioa, herriko etxean, berriki erroldatutako herritarrak gonbidatuta.
- Bisita gidatua herria ezagutzeko eta aisialdirako nahiz sozializatorako baliabideen berri emanez.

Orain arte bigarren jarduera landu da bereziki, harrera instituzionalarena alegia. Horretarako aurkezpenak egin dira hautetsi eta udal langileekin (administrari, idazkari eta gizarte langile zein hezitzaileekin). Harrera planaren nondik norakoak, udal langileek harreragile bezala duten egitekoa eta etorri berriei banatzeko euskarriak aztertu dira ordubeteko saioetan.

- Aurkezpenak (kronologikoki): 8
- Bortzirietako alkate eta euskara mankomunitateko ordezkari: 6 udal ordezkari, horietatik 3 alkate.
- Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean: 3 gizarte langile, gizarte hezitzailea eta administraria.
- Berako udalean: 2 administrari eta idazkaria.
- Etxalarko udalean: administraria eta idazkaria.
- Igantziko udalean: 2 administrari eta idazkaria.
- Arantzako udalean: administraria eta idazkaria.
- Lesakako udalean; 2 administrari eta idazkaria.
- Langileak guztira: 17
- Hautetsiak guztira: 6

Udal mailako harrerari buruzko saioak UEMAko teknikariarekin batera egin dira. Izan ere, harreraren gaia lantzen dute bi erakundeek (BEM-UEMA), eta bertze arlo batzuetan bezala elkarlanean dihardute. Bortzirietako bortz udalak dira UEMAko kide.

Prestatutako euskarri dagokienez, ikus-entzunezkoari eman zaio garrantzia gehien. Bi bideo labur prestatu dira, baita euskarazko baliabideekin dokumentu digitala ere, erroldatzera herritar berri bat heldu denean, interesa izanez gero bidaltzeko. Bideoari dagokionez, jatorri aniztasuna islatu nahi izan da, arnaguneei buruzko mezua zabaltzeaz bat. Bi bertsio egin dira, bata euskaldunentzat, arnagune batera heldu direla sentiberatzeko, eta bertzea erdaldunentzat, honako gaiak lantzen dituenak: ongi etorria eta euskara balioesten duen mezua; euskararen ezagutzari, transmisioari eta erabilerari buruzko zenbait datu; D ereduaren inguruko informazioa; eta euskara ikasteko mankomunitatearen dirulaguntza sistemaren berri, doakotasuna jomugan duena. Bigarren bideo honetan integrazioari, kulturari eta identitateri buruzko mezuak zabaltzen dira; bertzelako abantaila praktikoek berri ere ematen da, lanean eta gizarte bizitzan parte hartzeko aukerekin eta ikaskekin zerikusia dutenak. Bideoak Bortziria eta Malerrekako Youtubeko kanalean ikusten ahal dira.

Bertze helburu garrantzitsua herritarrak eta gizarte eragileak aktibatzea da, etorri berrien harreran parte hartu eta ekarpena egin dezaten. Herriarren harrera sarea sortzeko urratsa egin nahi da, zaila bada ere herri erakundearen bulkada hutsetik helburu hori erdiestea. Herritarrak hizkuntza, migrazio eta aniztasun gaietan sentsibilizatzea aurreikusten da, horretarako hitzaldi, saio edo ikastaroak antolatuta.

4.3.2. Haur eta gaztetxoak: mentoretza eta Solasean

Ondotik azaltzera goazen egitasmoen kasuan, bata bertzearen ondorio dela erran behar dugu. Biak Euskaltzaleen Topagunearekin landutakoak dira.

- Mentoretza linguistikoa, haur-gaztetxo etorri berrientzako oinarritzko laguntza (2017-2020).

Mentoretza hizkuntzaz kanpoko eremuetan aspaldi erabiltzen den estrategia da eta haur-gaztetxoei beren gaitasunak garatzen laguntzeko erabiltzen da. Horretarako mentorearen figura da oinarria, hori baita

Helburu garrantzitsua herritarrak eta gizarte eragileak etorri berrien harreran parte har dezaten aktibatzea da, hizkuntza, migrazio eta aniztasun gaietan sentsibilizatzea indartuz.

**Mentoretza
linguistikoaren
bidez
haur-gaztetxo
etorri berriei
herriko
aisialdian,
lagunartean,
espazioetan...
euskaraz
sozializatzen
laguntzen zaie.**

laguntzaile rolean arituko dena; normalean mentoreak gaztetxo boluntarioak izan ohi dira.

Euskararen eta harrera linguistikoaren eremura ekarrita, mentoretza linguistikoaren bidez mentoreek haur-gaztetxo etorri berriei herriko aisialdian, lagunartean, espazioetan... euskaraz sozializatzen lagunduko liekete, eta aldi berean euskara praktikatzeko gunea sortzen da mentorearen eta haur-gaztetxoen artean.

Programaren ezaugarriak dagokienez, hartzaileak D ereduan matrikulatutako 8-12 urte bitarteko (LH3-6) ikasle etorri berriak izan dira. Ikasketxea izan da programa honetan parte hartzeko ezaugarriak biltzen zituzten ikasleak identifikatu dituen eta familiei programa aurkeztu diena. Harrerekin estuki lotutako egitasmoa izaki, hasieratik ezarri zen haur bakoitzak gehienez ere bi ikasturte eman zitzakeela programa honetan.

Mentoreei dagokienez, abiapuntu modura eskualdeko gazte euskaldunak bilatu izan dira, 16-22 urte bitartekoak. Normalean bikotean aritu dira, mentorea eta gaztetxo bat; baina zenbait kasutan mentorea bi gaztetxorekin ere aritu da.

Bikote edo hirukotea ikasturtean zehar elkartu da, astean behin, ordu eta erdiz. Denbora horretan jarduera ludikoen bitartez, lagun giroan, herriko espazioak ezagutzuz eta bertako haur-gazte taldeekin harreman-duz euskaraz aritu dira, eskola eremutik kanpo betiere.

Ez du ibilbide erraza izan egitasmo honek. Mentoreak topatzeko zailtasunak izan ditugu eta zenbaitetan, mentoreak izanik, programan parte hartu nahi zuten familiak falta izan dira. Horrez gain, mentoretza egitasmoetan garrantzitsua da mentorearen eta parte hartzen ari den haur-gaztetxoaren artean adin tarte haundirik ez izatea. Izan ere, mentoreak zaintzaile, begirale edo hezitzaile roletik aldendu behar du, gehiago laguntzaile adinkide izateko. Hiru urteko esperientzia honetan ez da hori lortu, eta maiz lotu zaizkio mentoreari bereak ez ziren funtzioak.

Halere, zailtasun nagusia 2020ko martxotik aitzinera etorri zen, pandemiaren eta horri aurre egiteko osasun neurrien ondorioz. Izan ere, programaren helburu nagusia, hau da, parte hartzen zuten haur-gaztetxoei herriko bizimoduan sozializatzen laguntzea, ezin betez geratu baikenen egun batetik bertara. Hortik aitzinera programa mentorearen

eta parte hartzen zuten haur-gaztetxoaren arteko online mintzapraktika jarduera bihurtu zen. Mentoretza linguistikoaren ibilbidea 2020ko abenduan amaitu zen, “Solasean” programa abiatzearekin batera.

- “Solasean”, mentoretzaren bilakaera.

Zalantzarik gabe, neurri haundi batean mentoretzaren esperientziak ekarri gaitu “Solasean” programara⁸. Horri gehitu behar zaio ikaste-teetatik nahiz osasun zentroko pediatria zerbitzutik gero eta maizago adierazten diguten kezka; alegia, gero eta haur gehiago dira D ereduan euskara ikasteko zailtasunak dituztenak, eta horrek ondorioak ditu haur horien garapen eta emaitza akademikoetan. Haur horietako aunitz familia migratuetako seme-alabak dira, baina ez denak.

Hori da, beraz, hizkuntza errefortzurako programa honen abiapuntua. Programaren helburu nagusia da D ereduan euskara ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei aukera ematea euskara eskola orduz kanpo eta testuinguru ludiko batean erabiltzeko. Horrez gain, zeharkako helburu hauek ere jasotzen ditu:

- Euskara komunikaziorako tresna bihurtzea, euskararen eraginkortasuna eta funtzionaltasuna erakutsiz.
 - Ahozko hizkuntza gertuko gertaerak eta esperientzien bizipenak adierazteko erabiltzea.
 - Eguneroko komunikazio egoeratan parte hartzeko gai izatea.
- Adierazpenerako baliabideak eskuratuz komunikaziorako trebetasunak lortzea.
 - Eguneroko hiztegia ulertu eta erabiltzea.
 - Ahozko eta idatzizko esaldi eta testu sinpleak ulertzeko gai izatea.
- Herriko bizitzan murgiltzeko eta sozializatzeko baliabide linguistikoak erabiltzea.

Beraz, urritik abendura bitartean modu pilotuan garatu zen, eskaintza mugatua izanik. Ikastetxeei eskatu zitzaizen identifika zitzaten LHko 3-6 mailetan euskara ikasteko zailtasunak zituzten ikasleak, eta familia horiei programa hau aurkez ziezaieten. Erantzuna, ikastetxeena nahiz familiena, berehalakoa izan zen. Bi talde osatu ahal izan ziren, Beran eta Lesakan, eta lehen fase honetan guzira 17 haur aritu ziren, bi begiraleekin.

**“Solasean”
programaren
helburu nagusia
da D ereduan
euskara ikasteko
zailtasunak
dituzten ikasleei
aukera ematea
euskara eskola
orduz kanpo
eta testuinguru
ludiko batean
erabiltzeko.**

Solasean programan parte hartzen duten gehienak familia migratuen seme-alabak badira ere, bertako guraso erdaldunak dituzten edota etxean euskaraz aritzeko aukera ez duten haurren parte hartzea ere areagotu da.

Familiek nahiz programaren sustatzaileek hiru hilabeteko esperientzia laburraren balorazio positiboa eginda, mankomunitateak programa urte osora hedatzea erabaki zuen, baita eskaintza zertxobait haunditzea ere. Horri esker urtarriletik aitzinera hirugarren taldea eskaini ahal izan da. Ikastetxeei euskara ikasteko zailtasunak dituzten ikasleen zerrenda berrikus zezaten eskatu zitzairen, eta berriz familiekin harremanetan jartzeko, programaren berri emanez. Bigarren aldi honetan 27 neska-mutikok izen eman dute. Profilarri dagokionez, gehienak familia migratuen seme-alabak badira ere, nabarmen areagotu da bertako guraso erdaldunak dituzten edota etxean euskaraz aritzeko aukera ez duten haurren parte hartzea.

Programaren eskaintza eta ezaugarriak berdinak dira hasieratik. Astero bi orduko saio bat eskaintzen da. Lehen ordua eduki erabat ludikoe-tarako da. Mentoretza linguistikoaren ibilbidea oinarri, lehen zati hau kaleko espazioetan (parkeetan, plazetan...) eta bertzelako espazio publikoetan (liburutegiak, kultur etxeak...) garatzea hobetsi zen, herriko haur taldeekin interakzioa sustatzeko asmoarekin. Osasun neurriak eta eguraldia tarteko, ezin da beti horrela garatu, eta aunitzetan lehen ordu hori programarako erreserbatutako espazioan eman behar izaten dute.

Bigarren ordua errefortzu akademikoari lotuago dago, berariaz haurren euskarazko ahozko jarduna hobetzeari lotuago. Errefortzua modu ludi-koan lantzen da, jolas, dinamika, musika eta erabilera sustatzeko estra-tegien bidez.

Programaren antolaketa eta finantzazioa erabat dago Bortzirietako Eus-kara Mankomunitatearen esku, eta parte hartzea doakoa da familientzat.

Oraindik goiz da programa honen balorazio orokorra egiteko; horretar-ako gutierrez ikasturte bukaera arteko denbora utzi behar diogula de-ritzogu. Orduan bai, antolatzaileon balorazioa ez ezik, begiraleen, era-biltzaileen (haur nahiz guraso) eta ikastetxeen arteko balorazioa eginen dugu.

Edozein kasutan, hasierako ebaluazioan eta begiraleen asteroko jarrai-pen dokumentuetan oinarriturik, ondorio batzuk aitzintzera ausartzen ahal gara:

- Aitortu behar dugu azken urteotan hizkuntza errefortzua eskain-tzeko planteamenduekin uzkur izan garena, Bortzirietako errea-

litate soziolinguistikoa kontuan hartuta halakoak desegoki izan zitezkeelakoan, ghettoak sortzeko bide eman zezaketelakoan, etab. Datu soziolinguistikoa oinarri⁹ eta eskualdeko haur-gazte-txoentzako aisialdiko eskaintza erabat euskaraz izanik, D ereduan matrikulatutako familia migratuetako seme-alabek euskara zailtasun haundirik gabe ikas zezaketela aurreikusi genuen. Kalkulu okerra, zalantzarik gabe.

- Errealitateak erakutsi digu eragiteko beharra gero eta haundiagoa dela. Euskara ikasteko zailtasunak agertzen dituzten ikasleen kopurua haundituz doa urtez urte. Baina hori neurri batean bada albiste ona, kopuru hori emendatzeak erran nahi baitu gero eta gehiago direla euskarazko hezkuntzaren aldeko apustua egiten duten familia migratuak (Berako kasuan A eta B ereduak ere eskaintzen dira bertako ikastetxe erlijioso kontzertatuan).
- Profilari dagokionez, arestian aipatu dugu programan parte hartzen ari diren neska-mutiko gehienak familia migratuetakoak direla. Horietako zenbait bertan sortu eta hasieratik euskaraz eskolatuak dira, eta bertzeak gure eskualdera beranduago iritsi eta eskolatutakoak. Profil horretako haurrak eta familiak, euskararen ezagutza apala izateaz gainera, bertako kulturarekiko, hizkuntza ohiturekiko eta bizimoduarekiko urruti egoten dira maiz. Baina aipatu ere dugu, ikastetxeek hala baloratuta, euskaraz ez dakiten bertako gurasoen seme-alabak egitasmoan parte hartzen ari direla; eskola orduz kanpo euskara indartzeko egitasmoen beharra dute horiek ere, kultura eta hizkuntza distantzia hain haundia ez bada ere. Etxean euskara erabiltzearen eta hizkuntzaren gaineko balioak transmititzearen garrantzia eta beharra berresten digu horrek.
- Gure aurreikuspenen arabera, ondoko urteotan programa honen eta gisako ekimenen beharra areagotu eginen dira. Eskualdean finkatzen ari diren migratuak gero eta gehiago dira, eta pentsa daiteke familia proiektuak ere bertan garatuko dituztela. Horrez gain, gero eta nabariagoa da euskarazko hezkuntza sistemak ezin duela etxean euskara ikasterik eta erabiltzerik ez duten belaunaldi berrien euskalduntzea bermatu. Are gehiago, euskarazko hezkuntza sistema eta eskola orduz kanpoko aisialdi eskaintza osoa euskaraz izanda ere, egoera soziolinguistikorik optimoenean ere ezin dela beti bermatu belaunaldi berriak euskaldunduko direnik.

**Datu
soziolinguistikoa
oinarri eta
eskualdeko
haur-gazte-
txoentzako
aisialdiko
eskaintza erabat
euskaraz izanik,
D ereduan
matrikulatutako
familia
migratuetako
seme-alabek
euskara zailtasun
haundirik gabe
ikas zezaketela
aurreikusi
genuen.
Kalkulu okerra,
zalantzarik gabe.**

Funtsezkoa izanen da datozen urteotan ikastetxe eta bertzelako eragileekiko lankidetzan sakontzea, euskara ardatz duen kohesio soziala lantzea eta lortzea erronka kolektiboa baita, Bortzirietako hizkuntza eta kultura aniztasunak dakartzan aberastasuna aitortu eta balioetsita betiere.

5. ONDORIOAK

I

Lerrootan immigrazioaren eta euskararen gaia lantzeko ibilbideari errepaso eman diogu, gure ikuspegi, helburu eta jarduera aipagarrienak azalduta. Hizkuntza harrerarekin, etorri berriak (zein beren seme-alabak) euskarara erakartzeko eta euskaraz ikasteko egitasmoekin, eta hizkuntza aniztasunari buruzko sentsibilizazioarekin zerikusia duten jarduerak gero garrantzia haundiagoa dute gurean. Aurrekontuari begiratzen badiogu, eta hori izaten ahal da neurgailuetako bat, urteen joanean gorabeherak izanda ere, begi bistakoa da joera gorakorra: 2000. hamarkadan 1.000 € inguruko partidak izaten ziren, 2018an 7.000 € izan ziren, 2019an 5.000 €, 2020an 3.000 €, eta 2021ean 17.000 €.

Etorkizuneko erronkak Bortzirietako Euskararen II. Plan Estrategikoan zehazten dira, eta ez ditugu hemen errepikatuko. Horren harira, ez genuke gurean egiten denaren gaineko irudi hanpaturik eman nahi. Gure planetan harreraren eta hizkuntza zein kultura aniztasunaren gaiak lantzeko urrats sendoak eman baditugu ere, aunitzez ere gehiago da egiteke duguna orain arte egin duguna baino. Aurreikusten diren asmo horiek guziak garatzeko borondate irmoa eta bitartekoak beharrezkoak izanen dira; izan ere, planean aurreikusitakoa egikaritzean dago gakoa. Horrekin batera bi elementu giltzarri aipatuko ditugu, arlo honetan aitzinera egin dezagun ezinbertzekoak:

- Bortzirietan abian den euskalgintzaren inguruko gogoeta arrakastaz burutzea¹⁰, izaera, antolamendua, herritarrak eta eragileak aktibatzea, eta, herri mugimendu gisa, lidergoa eta erreferentzialtasuna (ber)eskuratzea. Mugimendu sozialaren berrindartzetik etortzen ahal da harrera eta aniztasun gaietan beharrezkoak diren bultzada eta aliantza berriak, eta, harrera instituzionalaren osagarri izanen den harrera soziala aktibatu eta indartzea. Berebat, elkarlanaren sendotzeaz ari garela, funtsezkoa izanen da datozen urteotan ikastetxe eta bertzelako eragileekiko lankidetzan sakontzea, euskara ardatz duen kohesio soziala lantzea eta lortzea erronka kolektiboa baita, Bortzirietako hizkuntza eta kultura aniztasunak dakartzan aberastasuna aitortu eta balioetsita betiere.
- Beharrezkoa izanen da, hortaz, hainbat eragilek elkar hartuta jardutea helburu hori ortzimugan. Bereziki Nafarroako Gobernuak bere egin behar du dagokion erantzukizuna. Izan ere, oraintxe

ebalatu berri den Nafarroako Euskararen I. Plan Estrategikoan honako helburu hau jasotzen zen:

Kanpotik Nafarroara etorritako herritarrek euskara ikas dezaten sustatzea eta horretarako modua ematea, bultzatuz euskara ikus dezatela haiek eta haien seme-alabek bertakotzeko eta bizimodua hobetzeko baliabide gisa. (Nafarroako Gobernua 2017, 47).

Horretarako aurkeztutako ebaluazio txostenean, helburu horri % 67an heldu zaiola aipatzen da, baita berriaz Bortzirietako Euskara Mankomunitateak egindako lana ere:

Etorri berriendako harrera programei laguntza: Nafarroako Udaletako Euskara Teknikariaren Sareak (NUETSek) egindako argitalpena; Bortzirietan bolondresek osatutako harrera sarea sortu eta etorri berriak euskara ikastera animatzeko bideoa ekoiztu. (Nafarroako Gobernua 2020, 17).

Nafarroako eskualde bateko harrera programak finantzatzeaz harago, bertzelako inplikazio bat beharko da aitzinera eginen badugu, batetik toki entitateekiko elkarlanean sakontzea, eta, bertetik, honako ardatz hauetan baliabide askitasuna bermatzea: etorri berrien seme-alabentzako euskara indartzeko programetan, etorri berrientzako harrera programa eta euskara ikastaroetan, eta herritar zein eragileentzako sentsibilizazioan, hizkuntza eta kultura aniztasunari buruz, eta migrazio prozesuek planteatzen dituzten erronkei buruz. ●

Aitzinera eginen badugu, ezinbestekoa izango da toki entitateekiko elkarlanean sakontzea, eta, baliabide askitasuna bermatzea etorri berrien seme-alabentzako euskara indartzeko programetan eta hizkuntza eta kultura aniztasunari buruz sentsibilizazioan, besteren artean.

OHARRAK

1. Jaiolekuari buruz, honako datu hauek eskuratu ditugu: Bortzirietako herri batean sortutakoak, Nafarroan sortutakoak, bertze probintzietan sortutakoak (bertan Hegoaldeko bertze euskal probintziak eta espainiar Estatukoak), eta espainiar Estatutik kanpo jaiotakoak (bertan daude Ipar Euskal Herrian sortuak).
2. Euskara indartzeko saioen eskatzaile aunitz etorri berriak edo horien seme-alabak ditugu.
3. Bortzirietako Euskaltegiak eskuratutako datuak eta BEMek landuak.
4. Euskara ikastaroak % 100ean laguntzen dira, eta aukera bada dirulaguntzaren zenbatekoaren zati handi bat ikastaroa hasi aitzin jasotzeko (%75). <https://www.bortziriak.eus/euskara-ikasleentzako-dirulaguntza-deialdia-2020-2021-2/>

5. 2018an antolatu zen *Euskara+* ikastaroa, bereziki zaintza lanetan ari ziren langileentzat, eta hagitx baikorki baloratu zen emaitza.

6. “Aniztasun hori iritsi da, beraz, gure eskoletara, geletara, osasun-zerbitzuetara, ostalaritzara, zaintza lanetara. Eta ez dakigu oso ondo nola jokatu, eta nola aurre egin gurean indartzen ari diren joera xenofoboiei (...) Euskalgintzak lan-esparru zabala du aurrean, harreman-sare horiek sortzen eta estutzen”. AMONARRIZ, Kike (2019). *Euskararen bideturutzetik*. Donostia: Elkar.

7. Ildoa: HAUR-GAZTETXOEN SOZIALIZAZIOA

Arloa: AISIALDIA, KULTURA, KIROLA ETA LAGUNARTEA

Helburua: Kanpotik eskualdera bizitzera etorritako ikasleen euskararako ibilbidea erraztea eta laguntzea, aniztasuna aitortu eta kontuan hartuta.

- Eskoletan guraso tutore eta harreragileen sarea sortu, kanpotik etorritako haurrei eta familiei laguntzeko.
- Kanpotik iritsi berri diren ikasleei mentoretza programa eskaini.
- Euskara indartzea behar duten haur eta gaztetxoentzako (bereziki etorri berriak) egitasmoa garatu, aisialdia, motibazioa eta eskola indartzea uztartuz.

Ildoa: HIZTUN BERRIAK

Arloa: KANPOTIK ESQUALDERA ETORRITAKOAK

Helburua: Kanpotik eskualdera bizitzera etorritako erdaldunak euskarara erakartzea eta euskararako ibilbidea erraztea zein laguntzea, aniztasuna aitortu eta kontuan hartuta.

- Harremanak euskaraz sustatzeko egitasmoa, euskara ikastaro berezituak (Euskara +, lan arlokoak), mintzapraktika esperientzia bereziak, etab.

Ildoa: GIZARTE ERABILERA

Arloa: HIZKUNTZA ETA KULTURA ANIZTASUNA

Helburua: Eskualdeko hizkuntza eta kultura aniztasuna aitortzea, eta aniztasun horrekiko jarrera positiboa bultzatzea.

- Migrazio eta aniztasunaren inguruko sentsibilizazio ekimenak, hitzaldiak, mahai-inguruak, kanpainak, eta etab.

Helburua: Elkar ezagutzarako guneak eta uneak sortzea, euskara erdigunean jarrita.

- Kultur eta hizkuntza aniztasunaren inguruko ospakizuna (“Mugarik Gabe”ren ondorengoa).

Arloa: HARRERA LINGUISTIKOA

Helburua: Etorri berriei ongi etorria ematea eta haiekin euskararen inguruko informazioa partekatzea, Bortzirietan arnagunea dela oinarri hartuta.

- Erroldatzen den herritar orori euskararen inguruko informazioa, euskarri ezberdinak erabilia, zehazki euskara ikasteko baliabideen berri emanez.
- Harrera instituzionala egiten duten eragileei (harrera, gizarte zerbitzuak, ikastetxeak, irakasleak...), hizkuntza harreraren inguruko formazioa.
- Etorri berriei ongi etorria eta informazioa emateko saioa, herriko etxean, berriki erroldatutako herritarrek gonbidatuta.
- Bisita gidatua herria ezagutzeko: aisialdia, bizitza soziala eta baliabideak.

Helburua: Herritarrek harreragile izateko sentsibilizatzea eta inplikatzeko.

- Ongi etorria emateko/egiteko prest dauden herritar boluntarioen sarea osatu.
- Harrera sareko herritarrei formakuntza euskara eta aniztasunari buruz.

Helburua: Hizkuntza harrera planaren koordinazioa lantzea. Herritarren eta udal agintarien arteko elkarlanerako gune berriak zabaltzea eta parte hartzearen kultura sustatzea.

— Hizkuntza harrera planaren koordinazioa, maila instituzionalean, eta harrera sa-
reari dagokionez.

8. Oñatiko “Txipistin” egitasmoa izan zen eredu nagusia bertakoa diseinatzerakoan.

9. 2019-2020 ikasturtean Bortziritan Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHko ikasleen % 90,5 D ereduari matrikulatua zegoen, % 4,7 B ereduari eta % 4,5 A ereduari. Hizkuntzen kaleko erabilerrari dagokionez, 2019an egindako neurketak emandako datuen arabera, 2-14 urte bitartekoaren artean euskararen erabilera % 84,4koa izan zen, gaztelaniar aritu zen % 15,1 eta % 0,4 bertze hizkuntza batean.

10. Parte hartze prozesu bat izanen da, jardunaldiak eta gogoeta saioa. Herritarrak eta eragileak elkartzea da xedea, Bortziritako euskalgintzaren norabidea eta etorkizuna berdefinitzeko, eta antolamendu eredu berri bat abian paratzeko.

BIBLIOGRAFIA

AMONARRIZ, Kike (2019). *Euskararen bidegurutzetik*. Donostia: Elkar.

ARBURUA, Rosa (2005). *1940-1960 Bortziritako gaztiak*. Zarautz: Alberdania-Kulturkari.

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA (2020). *Bortziritako I. Plan Estrategikoaren ebaluazioa*. Bortziritako Euskara Mankomunitatea.

ELHUYAR-BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA (2013). *Bortziritako Euskararen Plan Estrategikoa 2014-2017*. Bortziritako Euskara Mankomunitatea.

ELHUYAR-BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA (2020). *Bortziritako Euskararen II. Plan Estrategikoa*. Bortziritako Euskara Mankomunitatea.

<https://www.bortziriak.eus/wp-content/uploads/2020/12/BEM-II.-plan-estrategikoa-2021-2024.-Doku-interaktiboa.pdf> [Azken kontsulta: 2021-03-18]

NAFARROAKO GOBERNUA (2017). *Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016-2019)*. Nafarroako Gobernu-Euskarabidea.

NAFARROAKO GOBERNUA. *Nafarroako Euskararen I. Plan Estrategikoaren Ebaluazioa. Txosten exekutiboa*. Nafarroako Gobernu-Euskarabidea.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2021). *Gipuzkoako Hizkuntza Aniztasunaren Mapa*. Gipuzkoako Foru Aldundia. <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/hizkuntzaberdintasuna/gipuzkoakohizkuntzak/aurkezpena> [Azken kontsulta: 2021-03-18]

TOPAGUNEA-BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA (2018). *Bortziritako Hizkuntza Harrera Plana*. Bortziritako Euskara Mankomunitatea.